




ZIGOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ZIGOITIA

ZIGOITIKO GARBITXIKIA





1. Zer da Ondategiko garbitxikia?

Garbitxikiak zera dira, Arabako landa-eremuko hondakinen kudeaketarako ekipamenduak.

2. Nork erabil dezake?

Zigoitiko bizilagun orok, etxean obraren bat egitean, altzariak aldatzean eta inausketan edota lorezaintzan aritzean sortutako hondakinak kudeatzeko bada.


Inolaz ere ez dira onartuko ekonomia-jardueretatik eratorritako hondakinak.



3. Zein hondakin onartzen dira? ↓


• OBRA HONDAKINAK:

Berritze-lan txikietatik eratorritako adreilu, teila, harri, pladur-hondar, konketa, komun-ontzi eta abarrak.




• TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK:

Altzariak, koltxoiak, leihoak, atek, somierrak, palet-ak...



• INAUSKETA- eta LOREZAINZA-HONDAKINAK:

Kimatze- eta lorezaintza-hondakinak soilik: adarrak, belarra...



• MOTOR-OLIOAK eta ONTZIAK:

Erabilitako motor-olioa, kutsaturiko ontziak (plastikozkoak zein metalezkoak) eta ibilgailuen iragazkiak.

